



Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO


LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILA

5. UNITATE DIDAKTIKOA:

GIZA ESKUBIDEEN PROIEKTUA FAMILIAN



GAI ZERRENDAA





HEZKIDETZA

- Irakaslearen gida

MATERIALA

- “Familiako giza katea” jolasa
- “EMA.S.O.S telefonoa” jolasa
- Ikasleen koadernoak
- Familien koadernoak





HEZKIDETZA, BERDINTASUNERAKO HEZIKETA

**Ikasle oro, neska nahiz mutil, generoko rolik gabe:
bizitzaren arlo guztietan pertsona osoak eta
autonomoak.**


Giza Eskubideetan oinarritutako harremanak.

BERDINTASUNA:

- Ikasle guztiek, neskek zein mutilek, norbere autonomia, pertsonen arteko tratu onak eta erabateko hiritartasuna lortzeko heziketa eduki dezaten.
- Errespetuz eta indarkeriarik gabe hazi, sentitu, ekin, ikasi, erabaki eta elkarbizi daitezen.

- Nahiz arlo pribatuan nahiz publikoan Giza Eskubideak errespetatuz bizi eta elkarbizi daitezen.
- Arazoak eta auziak biolentzia-eza erabiliz konpondu ditzaten.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten.





LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN ZIKLOA

BIZITZARAKO PROIEKTU INTEGRAL PROPIOA


- Pertsona osoak eta autonomiadunak bizitzaren esparru guztietan:
 - Esparru publikoan eta pribatuan.
 - Zainketaren arloan eta ekoizpenean.
 - Familian eta gizartean.
 - Afektuetan eta kudeaketan.
- Norberaren bizitzan, familian, lanean, gizartean, eskolan, kirolean, kulturen, politikan eta abar, tratu onak eta Giza Eskubideetan oinarritutako harremanak.

NAHIKO! 5-6 Logoa

Emakumeen aurpegi erdi gorria. Desberdintasunengatik eta tratu txarengatik triste.

Emakumeen aurpegi erdi berdea. Berdintasunagatik eta tratu onengatik alai.

HELBURUA: aurpegi berdeak egon daitezen portaerak identifikatu eta garatu.




LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILA

UNITATEAK	JOLASAK
4. Ez naiz bakarrik bizi	Kanta bizi-biziak. Maite al nauzu?. Nork bere bidea. Pertsonaia bikainak, zineman bakarrik?
5. Giza eskubideen proiektua familian	Familiako giza katea. EMA.S.O.S.
6. Familian berdintasunez bizitzea	Hitz katea. Bihotz minez

UD 5, GIZA ESKUBIDEEN PROIEKTUA NIRE FAMILIAN:

- Familiaren elkarbizitza berdintasunaren eta kide guztien Giza Eskubideen ikuspuntutik.
- Tratu onen familia: errespetua eta pertsona bakoitzaren babesa, bizitza proiektu pertsonal ezberdinen onarpena eta laguntza.






IRAKASLEEN FORMAKUNTZA

IRAKASLEAREN GIDA:

1. Helburuak eta edukiak
2. Materialak eta ekintzak
3. “Familiako giza katea” jolasa
4. “EMA.S.O.S. telefonoa” jolasa
5. Ikaslearen koaderno
6. Familiaren koaderno



NAHIKO! 5-6

GIZA ESKUBIDEEN
PROIEKTUA
FAMILIAN

5 UNITATE
DIDAKTIKOA

IRAKASLEEN GIDA (1/2)

1 HELBURUAK ETA EDUKIAK

Unitate didaktiko honek **giza eskubideak eta tratu txarrak** zuzenean erlazionatzen ditu. Horretarako biak eszenatoki berean jarriz: etxea, eguneroko etxeko familiaren eta bikotearen bizimodua. Tratu on eta bikotearen zorionetik tratu txar eta bikotearen zorigaiztora daraman etenik gabeko bidea, alde batera ala bestera, etenik gabe ibiltzen ari garela adierazten da material ezberdinetan. Eta mutur batera ala bestera garamatzana giza eskubideen errespetua ala errespetu falta dela garbi azaltzen da. Hots: **gure bikotean (gure familian) giza eskubideen proiektua gauzatzen dugun heinean tratu on eta zoriontasunetik gertuago gaudela, eta alderantziz, bikotekide baten giza eskubideak errespetatzen ez direnean, tratu txar eta zorigaiztoko muturreruntz abiatzen ari garela**. Bi norabideko bizitza-bide eta pertsonen arteko harreman edo tratu-bide bakarra dugu, etengabe -egunerok- alde batera edota besteruntz ibiltzen ari garena.

Bide eta ibilbide hori bikote bakoitzak bere etxean eta eguneroko bizitzan ibili arren, ez da bikote horrena soilik. **Gertuko nahiz urrutiko inguruko pertsonen eta gizarte osoaren eraginpean dago etxe barruan bizi den egoera hori, egiten den ibilbide hori**. Nolabait esateko, “Familiako giza katea” deritzan jolasen jasotzen den bezala, pertsona eta egoera asko sartzen dira etxe horretan, eta faktore eraginkor horiek guztiek bultzatzen dute bikotekideak eta bikotea esaten gurean bi norabideko bide bakarrean, alde batera zein bestera. Gure gizarte honetan, zorritzarrez, ibilbideak tratu txarren aldera jotzen du maizegi eta errazegi. Bide hau gehienetan nahita eta konzienteki egiten ez dugunez, nola gertatzen da hau? Nola egiten dugu? Zer egiten dugu?

Gertuko pertsonen, maiz, isiltasun pisutsuaz eta ezjakintasun itxurakeriaz **gertatzen ari dena ezkutatu**, beste alde batera begiratzen dugu. Beste batzuetan, **jokabide eta portaera onartezinak ontzat eta normalizatzen edota ohizkotzat emanez**, gurean ere antzeko zerbait gertatzeko bidean jartzen gara. Edozein kasutan, beti ere, etxeko gauzak soilsoilik etxekoak direla esan, inor ezin dela hor sartu aldarrikatu eta lasai gertatzen gara.



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzak
EUSKO JAURLARITZA


Organismo Autónomo
GOBIERNO VASCO

5. UNITATE DIDAKTIKOA



**GIZA ESKUBIDEAK ETXEAN, FAMILIAN,
TRATU ONAK FAMILIAREN EGUNEROKOTASUNEAN**






GIZA ESKUBIDEAK ETA TRATU ONAK

Eguneroko harremanetan, eguneroko jokabideez alde batera edo bestera ibiltzen den familia-bide bakarra identifikatzea:

- Tratu onak, Giza Eskubideak garatzeko familia proiektua.
- Tratu txarrak, desamodioa, Giza Eskubideen falta, indarkeria.

Pertsonak, bikoteak, familiak ... egunero joaten dira norabide batean edo bestean. Bere jokabideek, bere familia tratu onerantz edo tratu txarrerantz eramaten dute, Giza Eskubideerrantz edo indarkeriarantz.

Giza Eskubideak sustatzen, defendatzen eta bermatzen dituen gizarte batek, hori guztia, etxean, familian, bikotean, bizitzan eta eguneroko etxeko harremanetan ere egin behar du.



**GIZA ESKUBIDERIK GABE EZ DAGO MAITASUNIK, EZ DAGO TRATU ONIK.
GIZA ESKUBIDEEN URRAKETEI BETI ETA LEKU GUZTIETAN EGIN BEHAR ZAIE KONTRA**

GIZA ESKUBIDEAK FAMILIAN

**Gertatzen ari dena
ezkutatuz, portaera
onartezinak ontzat
eta normaltzak
hartuz.**

**Gizonen hitzei,
eskubideei,
beharrei eta
proiektuei
lehentasuna
emanez.**

**Bere
lagunengandik,
lanetik, familiatik
eta abarretik
emakumeak
isolatuz.**

TRATU TXARRAK

GIZA ESKUBIDEAK

**BELDURRIK
BADUT,
LAGUNTZA
ESKATUKO DUT**

**Erasoak delitu dira
etxean, kalean,
tabernan, lanean eta
etxean, toki
guztietan.**

**Emakumeen eta
gizonen hitzek,
eskubideek, beharrek
eta proiektuek balio
bera dute.**

**Etxeko Giza
Eskubideak pertsona
guztien
erantzukizuna dira,
gizarte guztiaren
erantzukizuna.**

HIRUHILEKOAREN ANTOLAKETA

**Unitate didaktikoaren materiala
hiruhilekoan zehar erabili**



PAUSOAK

→ Asteroko saioetan ikasleekin:

- “Familiako giza katea” jolasa ezagutu, landu eta jolastu.
- “EMA.S.O.S. telefonoa” jolasa ezagutu, landu eta jolastu.
- Ikasleen koadernoak bete, jolasak barneratzeko. Zatika egiten joan daiteke.

→ Eskolan landu ondoren:


- Familien koadernoak etxera bidali etxekoekin landu, hausnartu eta partekatzeko. Zatika egiten joan daiteke.
- Ez da “etxeko-lana”, ez da eskolan “zuzenduko”. Erabileraren eta etxean lortutako giroaren jarraipena egingo da.

ONLINE JOLASAK




JOLASTU, BIZIARAZI, AZTERTU, HAUSNARTU:


- Lan-talderako materialak.
- Eguneroko egoerak, sentsazioak, bizipenak, sentipenak, harremanak... biziarazi eta gogoratu.
- Galdetu, aztertu, hausnartu, ulertu, eztabaidatu, adostu, iradoki, aldatu...
- Ondorioak, alternatibak, aldaketak...



JOLAS BAKOITZAK 3 ATAL:

- Hasierako tutoriala (azalpena)
- JOLASA
- Bukaerako laburpena (hausnarketa)





HASIERAKO TUTORIALA

ERABILERA:

- Jolasa ezagutzeko.
- Non dago tutoriala?
 - Lehenengo zikloko jolasetan (LH1 eta LH2) irakasleari alta ematerakoan azaltzen da.
 - LH3tik aurrera berriz, ikasle bezala alta ematerakoan azaltzen da.
- Lehen partidetan talde osoarekin erabil daiteke eta gero taldeka edo banaka.
- Tutoriala saltatzeko aukera dago botoi gorriari emanek. Adibidez, jolastu den lehen partidetan jadanik tutoriala egin bada eta jolasa jadanik ondo ezagutzen denean, ez da beharrezkoa berriro egitea.




BUKAERA KO LABURPENA

ERABILERA:

- Partidaren emaitzak aztertzeko eta kontzeptuak finkatzeko.
- Non dago laburpena?
 - Jokalari bakoitzari azaltzen zaio partida amaitzerakoan.
- Lehen jokaldietan talde osoarekin erabil daiteke eta gero taldeka edo banaka.
- Laburpeneko galdera batzuk jolastutako partidaren arabera dira.





ONLINE JOLASEKIN JARDUERAK

EMA.S.O.S. TELEFONOA
Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanaz
Representad esta situación dándole continuidad
S.O.S.17

EMASOS TELEFONOA, BAI, ESAN?

- Egundun, galdiera bat egin nahi nuke.
- Oso ondo. Galdereko zatiak, mesedez.
- Nere bizilagun baten ebearen zerbaite gertatzen dela uste dut. Zor egin dezaket?
- Eskerrik asko deibazagatik. Zor sumatu dute?
- Ez dakit, kopetari bezala eta negar zozirak, negar zozirak. Gertatzen gabe, baina dardariek, bultzadak, ez ohiko zozirak, "sai" batzuk eta gero zozirak.
- Orain baino lehenago sentitu al dituzu hainak?
- Nizuezen behinika zozor agian, baina ez aken aken bezain jaraman eta nabari.

TELEFONO EMASOS, ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- Hola. Cuéntenme una pregunta.
- Muy bien. Pregunte, por favor.
- Oso que pasa algo en casa de una vecina. ¿Qué puedo hacer?
- Gracias por llamar. ¿Qué has notado?
- No sé claramente, golpes y force, fuertes acallados. Sin golpes, pero ruidos no habituales, como golpes, empujones, algún "jaj" y luego silencio total.
- ¿Habías sentido algo parecido con anterioridad?
- Quiza alguna vez, pero no con la intensidad y frecuencia de esta última semana.



1.- JOLASTU AURRETIK, JOLASA EZAGUTU:

- Kartak eta fitxak ezagutu, marrazkien eta hitzen esanahia argitu...
- Irizpide anitzak erabiliz fitxak antolatu eta sailkatu. Pertsonaien ezaugarri komunak edota ezberdinak identifikatu.
- Kartak kopiaatu eta hormairudiak egin elkarren artean erlazionatuz, osatzen dituzten testu edo irudiak gehituz. Egungo albisteekin edota gertaerekin erlazionatu.
- Nork bere burua edota beste pertsonak errespetuz ezagutu eta deskribatzeko hitzen zerrenda osatu. Erabiltzen al ditugu hitz batzuk neskentzat eta beste batzuk mutilentzat? Zergatik?
- Hitz berrien hiztegi txikia egin. Hiztegia irudi, adibide, egoera edo esaldiekin lotu...
- Karta edota fitxa berriak sortu.

2.- JOLASTU ONDOREN, HAUSNARTU:

- Egindakoa aztertu, zalantzak argitu...
- Jolas amaierako online laburpena bete.
- Ezkerreko laukiko ariketak egin.
- Ikasleen koadernoko ariketak egin.



EMAKUNDE


EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomikoa Eusko Jaurlaritzan
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

5.UD-KO JOLASAK

- "Familiako giza katea" jolasa
- "EMA.S.O.S. telefonoa"

UD.5 - GIZA ESKUBIDEAK
ETXEKO KATEA



EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad

S.O.S.13



- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Egunon, lagun batek zuei galdetzeko esan dit...

- Bai, oso ondo. Esaidazu, mesedez.

- Nere senargia pronto handiko gizona da eta batzuetan, batzuetan bakarrik... Asko maite nau, hori bai. Baina..., batzuetan... ai ama, hau lotsa!

- Tranquil. Lotsatzekotan bera lotsatu beharko litzateke. Batzuetan...

- Batzuetan, oso gubiltan, arrazoiak ematen ez diodanean eta zerbaitetan kontra egiten badiot, sultan jartzen da nerekin. Eta ez da kontrolatzen. Eta kontrola galtzen duenean, igual, ba, belarondo batzuk ematen dizkit. Oso fuerte ez. Baina indar handia du eta...

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- Buenos días. Una amiga me ha dicho que os consulte a vosotras.

- Sí, muy bien. Dime, por favor.

- Mi novio tiene mucho genio y a veces, sólo a veces... Porque él me quiere, eso sí. Pero... a veces... ay, ¡qué vergüenza!

- Tranquila. En todo caso, debería avergonzarse él. A veces...

- A veces, muy pocas veces, cuando no le doy la razón y le llevo la contraria, se pone como un energúmeno conmigo. No se controla. Y cuando no se controla, me da varios tortazos. No muy fuerte. Pero tiene tanta fuerza...



**TRATU ONAK SORTZEN
DITUZTEN PORTAERAK ETA
EGOERAK IDENTIFIKATZEA
ETA GARATZEA,
ETA TRATU TXARRAK
SORTZEN DITUZTENAK
IDENTIFIKATZEA ETA
SAIHESTEA.**

- **Joko-taulak etxebizitza bat irudikatzen du. Bertan, tratu txarrak edo onak egon daitezke.**
- **Zenbait egoerek eta jokabidek areagotu egiten dute tratu onak emateko aukera.**
- **Zenbait egoerek eta jokabidek areagotu egiten dute tratu txarrak izateko arriskua.**
- **Jokoak egoera eta portaera horiek identifikatzen laguntzen du.**





EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzak
EUSKO JAURLARITZA

Organismo Autónomo
GOBIERNO VASCO

JOLAS ARAUAK 1



HASIERA

Jokoa fitxa beltza eta fitxa zuria "logelan" daudela hasiko da. Jokoaren protagonistak dira.

FITXA ZURIA

Tratu txarrak jaso ditzakeen pertsona bat irudikatzen du.

FITXA BELTZA

Beste pertsonaren Giza Eskubideak errespetatzen ez dituen pertsona bat irudikatzen du.

ATEAK

"X" duten laukiak dira. Fitxak lauki horietatik pasa daitezke baina ezin dira bertan gelditu.

* Joko hasierako tutoriallean zehatz-mehatz azalduta

JOLAS ARAUAK 2

Jokoan zehar fitxa gehiago sartu eta irtengo dira etxebizitzatik:

FITXA BERDEAK:

Fitxa zuriari lagunduko diote. Giza Eskubideak eta tratu onak bultzatzen dituzten portaerak dira.

FITXA GORRIAK:

Fitxa beltzari lagunduko diote. Indarkeria eta tratu txarren arriskua areagotzen duten portaerak dira.


Fitxak BALKOIA, PASILLOA, SUKALDEA, LOGELA, EGONGELA... errotuloak dituzten lauki berezietara iristen direnean, sartu eta irtengo dira taulatik fitxa berdeak eta gorriak.

Kasu horietan, mezu bat agertuko da eta, edukiaren arabera, fitxa berdeak eta gorriak sartu edo aterako dira etxebizitzatik.



Maite eta lagundu ahal zaituzten pertsonak daudela uste duzu, egoera ez dela bakarrik zure kontu bat


Autonomia pertsonala eta ekonomikoa ematen zizun enplegua galdu duzu




JOLAS ARAUAK 3

JOLASAREN DINAMIKA

- Fitxa zuriaren eta fitxa berdeen taldea fitxa beltza inguratzen eta geldiarazten saiatuko da. Eta alderantziz, fitxa beltza eta gorriak fitxa zuria geldiarazten saiatuko dira.
- Fitxa zuriarekin jolasten duen taldeak, bigarren partidan, fitxa beltzarekin jolastuko du. Eta alderantziz.
- Dadoaren balioaren arabera, nahi diren fitxak mugitu daitezke.
- Fitxa mugitzeko, fitxa gainean klikatu eta, ondoren, okupatu behar duen laukia klikatu. Fitxek ezin dute beste fitxen gainetik pasa.



Horrela ezin duzula jarraitu
eta zure bizitza eta
harremanak aldatuko
dituzula erabaki duzu




Egia ezkututzen ari zara
beldurra edo lotsagatik

FITXA ZURIARENTZAKO PUNTU BERDEAK ETA PUNTU GORRIAK

- Indartsu eta adoretu zaude. Indarrez beterik sentitzen zara.
- Ez zaude bakarrik:
- Lagunekin irten zara.
- Lagun batek deitu dizu elkarrekin egoteko.
- Senideek laguntza eskeini dizute.
- Lanpostu on bat aurkitu duzu.

- Tratu txarrak normalak direla pentsatu duzu.
- Egia ezkututzen ari zara.
- Senideek ez dute tartean sartzerik nahi.
- Bizilagunek ez dute ezer jakin nahi.
- Egoera hau normala dela esan dizute.
- Gertatzen zaizuna ez zaio inori axola.
- Etxeko gauzak etxean konpontzen direla esan dizute.
- Bikotea onerako eta txarrerako dela esan dizute.




Horrela ezin duzula jarraitu
eta zure bizitza eta
harremanak aldatuko
dituzula erabaki duzu

Lan bila hasi zara.

FITXA ZURIARENTZAKO PUNTU BERDEAK

- Bere dirua eta aurrezkiak eskuratu ditu.
- Norbaiti egia esatea erabaki du.
- Sinetsi ez zion lagunak orain sinetsi dio.
- Tratu txarrak gainditu zituen emakume bat ezagutu du.
- Horrela ezin dela jarraitu erabaki du.
- Egoera aldatu behar duela erabaki du.

- Giza-eskubideak dituela sinetsi du.
- Etxetik kanpo lanpostua bilatzen hasi da.
- Bere lagunei deitu die elkarrekin egoteko.
- Etxetik kanpo lanean hasi da.
- Berarentzako denbora hartzen hasi da.
- "EZ" esan nahi duenean, "EZ" esatea erabaki du. Eta "BAI" esan nahi duenean, "BAI" esatea.
- "EZ" esan du, "EZ" esan nahi zuenean.



"EMA.S.O.S. TELEFONOA" ROL JOLASA

Eztabaidatzeko, osatzeko, erantzuteko, antzezteko gidoiak, larrialdietarako telefono bati egindako deien hasierak jasoz

JASO DIREN EGOERAK

1. Jo egin nau, bai.
2. Bultza egin zidan. Eta oihiu eta garrasi pila.
3. Diru guztia kendu dit eta berari eskatu behar diot egunero.
4. Sexu harremanak. Oso bortizki hartzen nau, mina emanez.
5. Nora noan, norekin hitz egin dudana, noiz etorriko naizen...
6. Semeari laster berriro elkarrekin biziko garela esan dio.
7. Dena gaizki egiten dudala esaten dit, ez dudala ezertarako balio.



EMA.S.O.S. TELEFONOA

Antzeztu ezazue egoera hau jarraipena emanez
Representad esta situación dándole continuidad

S.O.S.17




- EMASOS TELEFONOA. BAI, ESAN?

- Egunon, galdera bat egin nahi nuke.
- Oso ondo. Galde iezaadazu, mesedez.
- Nere bizilagun baten etxean zer bait gertatzen dela uste dut. Zer egin dezaket?
- Eskerrik asko deitzeagatik. Zer sumatu duzu?
- Ez dakit, kolpeak bezala eta negar zotinak, negar isilik. Garrasirik gabe, baina danbatekoak, bultzadak, ez ohizko zaratak, "ai-ai!" batzuk eta gero isiltasuna.
- Orain baino lehenago sentitu al dituzu halakoak?
- Noizean behinka zeozer agian, baina ez azken astean bezain jarraian eta nabari.

- TELÉFONO EMASOS. ¿EN QUÉ PUEDO AYUDARLE?

- Hola. Quisiera hacer una pregunta.
- Muy bien. Pregunta, por favor.
- Creo que pasa algo en casa de una vecina. ¿Qué puedo hacer?
- Gracias por llamar. ¿Qué has notado?
- No sé claramente, golpes y lloros, lamentos acallados. Sin gritos, pero ruidos no habituales, como golpes, empujones, algún "¡ay!" y luego silencio total.
- ¿Habías sentido algo parecido con anterioridad?
- Quizá alguna vez, pero no con la intensidad y frecuencia de esta última semana.





“Kadeneta familiarra” jolasean fitxa berdeak sartzen dituzten txartelak kontuan hartuta aztertzeke egoerak. Hau da, horrelako egoerak aurreikus, saihestu eta bideratzen lagundu ditzaketen Giza Eskubideen eta tratu onen aldeko portaerak identifikatzeko

8. Soilik hitz egiteko deitu dut.

9. Odola darion zauri bat dut belarri atzean eta sendatzea nahiko nuke.

10. Bart nere senarrak jo egin ninduen eta etxetik alde egin nuen.

11. Aizan! Nere emaztea non den jakin nahi dinat!

12. Barkatzeko eskatu dit, guztiz damututa dagoela.

13. Nire senargaia pronto handiko gizona da.

14. Orain arte ondo bizi izan naizela bere lepora esan dit.

15. Batzuetan alaba joka hasiko dela iruditzen zait.

16. Nire ahizpak tratu txarrak jasaten dituela uste dut.

17. Nire bizilagun baten etxean zerbait gertatzen dela uste dut.

18. Lehengo igandean diskotekan tipo bat jipoitu zuen ni begiratzeagatik.



19. Nire amak eta izebak normala dela esaten didate.

20. Nire senarra pertsona ezaguna da, oso lanpostu ona dauka, ospetsua da, baina...

**IKASLEEK ANTZEKO EGOERAK
PLANTEATZEKO EREDUAK**



Erakunde Autonomiaduna  Organismo Autónomo
EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**



GIZA ESKUBIDEEN NERE FAMILIAKIN S. UNITATE DIDAKTIKOA IKASLEAREN KODERENGA

4 GIZARTETARI NERE ESKAERAK

Norberak ahol egien dezake, eta familiak ere bai, tratu txarren "nahiak" eusn eta familaren bitartez familiakoren Giza Eskubideetan oinarritzeko. Baina, hau gertatzen ez denon, gizariek erantzun behar du egoera tamalgarriz dardalen persona horien eskubideak balente eta bermatuko.

Nola egia behar du zure suts? Zer eskutzen dituzu zuk gure gizarteari (jendea, lagunek, hitzlagunek, eskola, udalarek, polizia, ospitalak, elkartek...) gai honetan?

5 GIZA ESKUBIDEEN EREDUA

Giza Eskubideen arloan, tratu txarren arloan, ezinezkoa da "neutrale" izatea, beti eragiten dugun. Eginez eta egia pabe, beti, zue guri ikusleaz, gogoratuz ala benderatuz giza.

HOTATZEN DUGU?

Zergatik ez dituzue zuen eskaerak amankomunen jardueta eta gortien lehenen eskutikaz bizialden dagokien gizaite erakunde eta elkarrei?

HITZ EGIN, HAUSNARTU, BARNERATU, LABURTU:

- Hitzak eta marrazkiak markatu ("X" idatzi...).
- Hitzak marrazkiekin lotu. Irudiak gehitu...
- Galderak erantzun. Testuak idatzi...

PDF
betegarriak



FAMILIEN KOADERNOA

Landutako jolasei buruzko ariketak

GIZA ESKUBIDEEN PROIEKTUA
NERE FAMILIAN

NAHIKO! 5-6

5 UNITATE DIDAKTIKOA

FAMILIAREN KOADERNOA

1 NERE ESKUBIDEAK

Zein eskubide dituzu ZUK? Zein eskubide bermatzen ditu zure familiak? Zeintzuk gizariek? Zeintzuk familiak eta gizarteak? Erakutsi hiru egun eta behar duzula taula osatu.

NERE ESKUBIDEAK	FAMILIA	GIZARTIA
Berdintasun eskubidea		
Segurtasunez bizitzeko eskubidea		
Azken izateko eskubidea		
Tortura eta tratu txarren kontrako eskubidea		
Osasuna eta Giza Seguratzeko eskubidea		
Lana izateko eskubidea		
Legeari aurreko berdintasun eskubidea		
Bikotea izan eta familia eratzearen eskubidea		
Bikotearen eta haren gurasoen eskubidea		

IZENA

2 NERE ETXKO ESKUBIDE, ARDURA ETA EGINBEHARRAK

Nola munitzen dira gure etxean, eguneroko bizitzan, gurtien eskubide hauek? Denek gura berdinak? Denek dituzte eskubide berberak? Denek gura puzko familiakideak? Zein egiten dugu herria izan dadin? Nola bermatzen ditugu pertsona gurtien eskubide gurtiak gure familian? Matri gurtiaren familiakideen izenak eta taula bete osatu.

FAMILIAKIDEA				
Bizitzeko eskubidea				
Segurtasunez bizitzeko eskubidea				
Azken izateko eskubidea				
Bere bizitza puzikutsu egiteko eskubidea				
Bere lagunek izan eta zaintzeko eskubidea				
Berearentzat denbora izateko eskubidea				
Tratu txarren eta tratu txarren kontrako eskubidea				
Osasuna bizitzeko eskubidea				
Atxerria hartzeko eta aisialdia izateko eskubidea				
Familia gurtian atxan zaintzeko eskubidea				
Heriotza eta prebentzio eskubidea				
Norberaren prebentzio eskubidea				
Norberaren adostasun eskubidea				
Lana izateko eskubidea				
Lana bizitzeko azken berdintasun eskubidea				
Etxea eta lana erabakitzeko eskubidea				
Etxeko adarrek izan arrian erabakitzeko eskubidea				
Gogo azken bikotea izan eta familia eratzearen eskubidea				
Familiakideen eskubide berberak				
Familiaren egitura eta aldatzeko gurtietan				

NERE FAMILIAREN ERREZETA

Zein da zure etxeko sekretua, familiakide gurtiok zure eskubide gurtiak gura izateko familiako errezeta? Matri osatu lanki bakoitzean familiakide bakoitzak hurrengoan egiten duena.

TRATU TXARRAK ESKIBIDERIK GABE

Zure eskubide horietatik, zeintzuk ez dira errespetatzen bikoitzean tratu txarrak diren?

Berdintasun eskubidea	
Segurtasunez bizitzeko eskubidea	
Azken izateko eskubidea	
Tortura eta tratu txarren kontrako eskubidea	
Osasuna eta Giza Seguratzeko eskubidea	
Dubako eta beharrezko Heriotza kontrako eskubidea	
Lana izateko eskubidea	
Legeari aurreko berdintasun eskubidea	
Bikotea izan eta familia eratzearen eskubidea	
Bikotearen eskubide berak izateko eskubidea	
Bikotea eta haren gurasoen eskubidea	

3 ETXKO ESKUBIDE NERE FAMILIAN

4 ETXKO ESKUBIDE NIK NABI DUDANA


5 ETXKO ESKUBIDE NERE FAMILIAN

6 ETXKO ESKUBIDE NERE FAMILIAN

HITZ EGIN, HAUSNARTU, ADOSTU:

- Hutsuneetan hitzak idatzi. Irudiak gehitu...
- Fitxak osatu. Testuak bukatu. Galderak erantzun...
- Hitzak eta marrazkiak markatu ("X" idatzi, zenbaki bera jarri...).

PDF
betegarriak



FAMILIEN KOADERNOAREN ERABILERA



PAUSOAK:

1. Familiei koadernoaren helburuak eta erabilera azaldu (ikus beheko laukia).
2. Eskolan landu ondoren, familiei koadernoak bidali: USBan, e-mailez, eskolako web-ean ala plataforman zintzilikatu, inprimatuta banatu...
3. Koadernoaren ariketak familiekin hitz egin, partekatu eta hausnartzeko erabili.


TOPAGUNEA DA, AUKERA BAT, EZ "EGINBEHARRA"

- Eskolako lanetaz hitz egiteko eta hausnartzeko aukera.
- Elkar ezagutzeko eta harremanak sendotzeko aukera.
- Esperientziak, sentimenduak, balioak, erabakiak... **BIZITZA** partekatzeko aukera.

- Ez dira erantzun bakarra eta egiteko modu bakarra duten ariketak.
- Ez da beharrezkoa dena idaztea, dena erantzutea eskolara bidaltzeko.
- Helburua, familian erabiltzea da, eskolaren laguntza eta jarraipenarekin.



- Nabigatzailean leiho independententeak nola sortu.



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO